

AURKEZPENA

Azken urteetan hainbat arazo egon direla ikusi dugu eta hauetako garrantzitsuena aldaketa klimatikoa dela pentsatzen dugu. Geroz eta zuhaitz gehiago mozten dira papera egiteko eta jarduera honek kalte handia egiten dio gure ingurumenari. 2021. urtean milaka zuhaitz moztu zituzten Amazonasen, honek milioi bat baino espezie gehiagoren habitaten suntsipena eragin zuen. Honi aurre egiteko hainbat ikerketa egin ditugu eta zuhaitzen suntsiketa murrizteko paperezko orriak berrerabiltzea ezin bestekoa dela pentsatu dugu.

Gu Markel, Iker, Beñat eta Ander gara eta "MBO" taldea osatzen dugu. Urretxu Zumarraga ikastolako lehenengo batxilergoko ikasleak gara eta arazo honi irtenbide bat emateko egiten ari gara proiektu hau. Gure bizitzan zehar eskolan aldaketa klimatikoari laguntza bat emateko ekintza desberdinak egin ditugu, ekintza hauek oso garrantzitsuak direla uste dugu eta hauen bidez jendea geroz eta gehiago kontzientziatu dela ikusi dugu. Lehen esanda bezala hainbat ekintza egiten dira gure herrian arazo honi soluzio bat ematen hasteko, urtero erreka eta herria garbitzen dira, azken urtean tona bat hondakin jaso genituen errekatik. Plastikozko botila berrerabiliekin hainbat gauza egin ditugu, azkeneko urtean adibidez gabonetako zuhaitz bat egin genuen. Hauek egiterakoan jendearen partaidetza esperotakoa baino handiagoa izan da eta urtero geroz eta jende gehiago kontzientziatzen dela ikusi eta gero, zerbait gehiago egin behar dugula pentsatzen dugu. Denbora askoz honi bueltak ematen egon gara eta paperaren berrerabilketan laguntzeko zerbait egin behar dugula pentsatu dugu.



Konturatu gara paperaren erabilera masiboak gizartean arazo handiak sortzen dituela, eta geroz eta zuhaitz gehiago mozten direla, pertsonako 500.760 paperezko orri erabiltzen ditugu bizitza osoaren zehar. Honi soluzio bat ematen badiogu aldaketa klimatikoarekin bukatzeko labore garrantzitsua egingo genuke. Zuhaitzek funtzio garrantzitsuak dituzte: oxigenoa sortu, airea garbitu, lurzoru emankorrak eratu, ibai garbiak mantendu... Hauek mozten jarraitzen badugu karbono dioxidoaren, karbono monoxidoaren, sulfuro dioxidoaren eta nitrogeno dioxidoaren kontzentrazioak handiagoak izango lirateke, eta horrek pertsona eta animalia askoren heriotza eragingo luke. Arazo guzti honi soluzio bat emateko, laser eta plantxa batekin orritik tinta ezabatu dezakeen makina bat sortzea erabaki dugu, honek onura handiak ekarriko ditu, adibidez paper bakoitzak erabilera bat baino gehiago izango luke eta honekin paper kantitate gutxiago erabiliko genuke.

